

Begirada^k

Euskadin memoriaren gizarte
eraikuntzarako oinarri partekatuak

2022ko azaroaren 10a - **Memoriaren Eguna**

Unai Belaustegi Bedialauneta
Eider Landaberea Abad
Virginia López de Maturana Diéguez

Josu Elespe Pelaz
Maria Jauregi Lasas
Axun Lasas Arostegi

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua

gogora

Euskadi, ausolana, bien común

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTITZIA
ETA GIZARTERAKO POLITIKAKO BAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTITIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkibidea

1. Prozesua	7
1.1. Ez gara hutsetik abiatzen.....	7
1.2. Historia eta Memoria. Memoria eta Historia. Lan dinamika.....	9
2. Emaitzak: Bizikidetzarako memoria. Oinarri partekatua	10
2.1. Ahanzturarik gabeko etorkizuna.....	10
2.2. Memoriadun etorkizuna.....	10
2.3. Nork bere burua justifikatzea helburu duten kontakizunak gainditzea.....	11
2.4. Iraganaren berrikuste kritikoa eta autokritikoa.....	11
2.5. Egia.....	12
2.6. Biktima guztien aitortza: memoriari buruzko politika publikoen ardatza.....	13
2.7. Memoria pedagogikoa eta transmisio betebeharra.....	13
2.8. Memoria partekatua.....	14
2.9. Bizikidetzarako memoria.....	14
ERANSKINA: Elkarrizketatu ditugun pertsonen zerrenda	15

“Memoriak historia bilakatzea, historia memoria bilakatzea” helburua zehazten da Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak 2022ko otsailean onartu zuen idatzian. Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren Sailburuordetzak, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren barruan dagoenak, “Terrorismoaren eta indarkeriaren iraganaren memoria kritikoa” sustatzeko konpromisoari erantzuteko (2020-2024rako gobernu programaren 101. konpromisoa) eta “gure memoria hurbilerako printzipio eta oinarrien inguruko akordio plurala sustatzeko, aniztasunean oinarritzen den bizikidetzari ekarpen esanguratsua egiteko” (2021-2024rako Gogoraren Jarduera Planaren 7. ekimena) “Euskadin memoriaren gizarte eraikuntzarako oinarri partekatuarako” proiektua bultzatu du”.

Proiektu horrek bizikidetzaren demokratikoa eraikitzen lagundu nahi du, hurbilketa berezi batetik, hain zuzen ere, historiaren eta memoriaren arteko harremanen gainean eraikitako begiradatik. Lantaldearen osaerak berak begirada horri erantzuten dio: proiektuaren talde eragilea hiru historialarik –Unai Belaustegi Bedialauneta (EHU), Eider Landaberea Abad (Deustuko Unibertsitatea) eta Virginia López de Maturana Diéguez (EHU)– eta hiru biktimak –Josu Elespe Pelaz, Froilán Elespe Inciarte ETaren biktimaren semea; Maria Jauregi Lasa, Juan Maria Jauregi Apalategi ETaren biktimaren alaba; eta Axun Lasa Arostegi, torturaren biktima eta Joxean Lasa Arostegi GALen biktimaren arreba– osatu dute.

Gaur, azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, bestelako begirada honen emaitzak aurkezten ditugu, labur-labur. Ez da ez lan akademiko bat, ezta ikerketa proiektu bat ere. Ez da ez txosten tekniko bat, ez dibulgazioko proiektu bat, ezta material pedagogikoa ere. Sentsibiltate desberdineko sei pertsonako talde honetan osatu dugun gogoeta partekatuararen emaitzak jaso ditugu. Aurkezten duguna ez da banakako iritzien batura, ez ditugu gutako bakoitzaren balioespenak elkarren segidan jarri, besterik gabe. Aitzitik, guztiok komunean duguna abiapuntu hartuta eraiki dugun zerbait da, seiok partekatzen duguna azpimarratzen duena, batzen gaituena, eta ez elkarren arteko desberdintasunak edo bereizten gaituena. Desberdintzen edo urruntzen gaituenak lotzen gaituena lausotu ez dezan egin dugu lan. Desberdintasunak egon badaude, noski, eta desberdintasunak daudelako eta azken emaitza iritzien batura hutsa ez delako, dokumentuak, banaka, ez gaitu guztiz gogobetetzen. Baina ez da “aldean” dokumentu bat. Lantalde honen ahots kolektiboa adierazten du, bere buruari galdera bat egin ondoren: nola begiratu beharko genioke iraganari bizikidetzarako memoria bat eraikitzen laguntzeko? Eta galdera horri erantzuteko egin dugun bideak, horrek bai, guztiz gogobetetzen gaitu.

Aurkezten dugun dokumentu honek bi atal nagusi ditu, sarrera honetaz eta eranskinaz gainera. Lehen atala prozesuari berari eskaini diogu eta bi azpiatal ditu: lehenengoan, azpimarratu nahi izan dugu memoriari eta bizikidetzari dagokionez, Euskadin ez garela hutsetik abiatzen; bigarrean, lantaldearen lan dinamikaren berri eman dugu. Dokumentuaren azken atalean gogoeta prozesu honen emaitza nagusiak azaldu ditugu.

1. Prozesua

1.1. Ez gara hutsetik abiatzen

Memoria-bizikidetzaren binomioa, orain dela urte batzuetatik hona, eragile, erakunde, elkarte eta kolektibo askoren eta askotarikoen gogoeta eta langai izan da. Hain zuzen ere, ugariak dira gai horien inguruko esperientzia positiboak eta "jardunbide egokiak". ETAK 2011ko urrian "jarduera armatua behin betiko utziko" zuela iragartzeak inflexio puntu argi bat ekarri zuen indarkeria politikoen egunerokoarekin lotutako alderdi guztietan; inflexio puntu bat, oro har, euskal herritarren bizitzan eta, bereziki, bizikidetzan. Horrek ez du esan nahi, ordea, esparru horretan aurretik ezer egin ez zenik. Baina iragarpen horrek ekarri zuen egoera berriak aurrerapausoak erraztu zituen gai kritiko askotan, horien artean, biktima guztien aitorten instituzional, sozial, sinboliko eta moralean, edo espetxe politikan. Euskal gizarteak bere buruarengan konfiantza handiagoa du orain eta uste du, gure iragan hurbilaren berrikuste kritikotik eta autokritikotik abiatuta, bizikidetzaren demokratikorako eredu sendo baten eraikuntzan sakontzeko gutxienezko baldintzak eta adostasuna badaudela.

Gure asmoa ez da memoria-bizikidetzaren arloan ekarpena egin duten eta egiten ari diren ekimen, programa, esperientzia, erakunde, elkarte edo antolakunde guztien zerrenda osoa eta zehatza ematea. Ezinezkoa izango litzateke. Eta ez da lan honen helburua. Baina azpimarratu nahi dugu gaur egun memoriaren eta bizikidetzaren inguruko inolako gogoetarik ez dela hutsetik hasten. Indarkeriak eta izuak baldintzatutako gure iragan hurbilean gertatu izan diren giza eskubideen urraketarik larrienen txostenak prestatu izan dituzte hainbat erakundetako adituek: Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiako Euskal Institutua, EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, EHUko Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutua, Aranzadi Zientzia Elkarte eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroko Artxibo, Ikerketa eta Dokumentazio arloa, besteak beste. Horiek guztiek gertaerak eta kasuak ezagutzen lagundu dute, baita haien errealitatea kuantifikatzen eta dagokion dimentsioa ematen ere.

Hezkuntza komunitateak memoriaren eta bizikidetzaren arloan izan duen inplikazio aktiboa egin diren eta gaur egun ere egiten diren ekimen eta proiektu ugarietan ikus dezakegu. *Adi-adian* programa, biktimen lekukotzak ikasgeletara eramaten dituen (biktima hezitzaileak) "jardunbide egoki" horien adibideetako bat da. Programa 2011n jarri zen abian, modu esperimentalean, eta orduz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Biktimen Zuzendaritzak bultzatu du. Hezkuntza komunitateak bakerako, indarkeriarik ezerako eta biktimizekiko elkartasunerako hezkuntzarekin duen konpromiso irmoa erakusten du. Hasieran DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei eskaintzen bazitzairen ere, programa garatzen joan da 2013az geroztik eta, azken urteetan, unibertsitate esparrura ere zabalduta. Ordurako, *Glencree* (2007) esperientzia egina zen, indarkeria politikoko eta mota ezberdinetako terrorismoaren biktimen topaketa eta eztabaida ahalbidetu zuena. Ildo beretik, aipatu ere *Eraikiz* izeneko ekimena eta dokumentua (2015).

Gizalegez akordioak (2013) EAEko hezkuntza eragileen konpromisoa jaso zuen, giza eskubideen eta bakearen kulturaren hezkuntza lantzeko. Eta 2017an, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru unibertsitateek hitzarmen bat sinatu zuten giza eskubideen eta bizikidetzaren esparruko hezkuntzarekin lotutako jarduerak elkarrekin bultzatzeko.

Gainera, hainbat erakunde, ikastetxe eta hezkuntzako eragilek unitate didaktikoak eta hezkuntza programak prestatu dituzte EAEko hezkuntza curriculumean memoriaren dimentsio historikoa txertatzeko. Horien adibide dira Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren ekimen ugariak edo Fernando Buesa Fundazioaren ekarpenak. Unibertsitate esparruan, azpimarratzekoak dira gai honen didaktikari lotutako proiektuak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) Gizarte Zientzien Didaktika Sailak egindakoak, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatu Zentroko Memoriari, Hezkuntza Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko

koadernoak, *Eskura* Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroko lanak, eta EAEko hainbat eta hainbat ikastetxeren ekimen kontaezinak. Esparru horretan bertan aipatzekoak dira, halaber, *Etikasi* programa (Batxilergoko, Lanbide Heziketako Erdi eta Goi mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduatuko 1. mailako ikasleentzako hezkuntza programa, etikaren eta giza eskubideen esparruko prestakuntza eskaintzen duena, eskubide horien urraketa larriak bizi izan dituzten toki enblematikoetara bisitak eginez) edo *Zinexit* (giza eskubideen zinema erakustaldia) hezkuntza esparrura ere zabaltzea.

Azkenik, *Terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren arloan egin beharreko urratsak, biktima horien ekarpena hobetzea eta eraginkorrago egitea ere helburu dutenak, hala hezkuntzaren arloan nola iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuetan eta, oro har, desberdinen arteko elkarriketan* dokumentua ere (2020), Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak prestatua eta Kontseilu horretan aho batez onartua, ekarpen garrantzitsua da memoriaren eta aniztasuna oinarri duen bizikidetzaren hezkuntza dimentsioan.

Tokiko/udalerriko esparrua oso emankorra izan da gai honetan. Euskal udalerrri askok egin dute lan nork bere herrian 1960 eta 2010 urteen artean gertatu izan diren bizitza eskubidearen urraketak identifikatu ahal izateko. Lan horiek Eusko Jaurlaritzak sustatutako *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)* proiektua osatzen joan dira. Baina identifikazioaz eta zerrendatzeaz harantzago, udalerrri askotan, bereziki Gipuzkoan, foroak eta mahaiak osatu dira, ohikoez bestelako espazioak sortu eta gertatutakoaren inguruan gogoeta egiteko eta, gogoeta horretatik abiatuta, bizikidetzaren alde modu aktiboan eta eraikitzailean lan egiteko. "Espazio" horiei esker, aniztasunean, askatasunean, konfiantzan, entzutean, elkarriketan, errespetuan eta enpatian oinarritutakoak, nabarmen egin ahal izan da aurrera tokian tokiko bizikidetzan. Giza eskubideen urraketekin lotutako gaiak hain zailak eta gogorrak izanik, adituen lan profesionala behar izan da horrelako prozesuak dinamizatzeko eta bideratzeko. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira Bakeola EDE Fundazioa, Baketik, Geuz eta Berbari Lekua erakundeen lana. Udalerrri mailan, nabarmentzekoak dira Argitzuz Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen txostenak, *Memoria partekatuta baterantz* izenaz argitaratuak (Errenteria, 2015; Lasarte-Oria, 2017; Elgoibar, 2017; Andoain, 2018; Arrasate, 2018; eta Legazpi, 2021) edo *Elkarbizi* ekimena, eskualde mailan (Donostialdea - Buruntzaldea).

Memoria eta bizikidetzaz kezkatu eta lan egin dute beste hainbat erakundek ere. Horien artean aipatzekoak dira Gogoan-Por una memoria digna, Foro Sozial Iraunkorra -2021ean *Bizikidetzak demokratikoa eraikitzeko Konpromiso Soziala* prozesuaren ondorioak aurkeztu zituenen-, Gernika Gogoratuz, Agirre Lehendakari Center edo Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarten Foroa.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi sorkuntza eta produkzio artistikoaren arloak, orokorrean, eta fikzioak, bereziki, baliabide pedagogiko eta didaktiko gisa eskaintzen dituen aukera ugariak, pentsamendu kritikoa eta balio etikoak eta demokratikoak lantzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko kulturekoizpena eremu emankorra izan da eta hala izaten jarraitzen du, eta bertan gure indarkeriazko iragan hurbileko errealitate zail eta gogorrera hurbiltzeko modu desberdinak azaleratu dira. Literaturak, zinemak, antzezlanek edo telebistarako sortutako fikzioek eta dokumentalek kultur memoria horren hainbat eta hainbat adibide ematen dizkigute. ETAK "jarduera armatua eteteak" ere izan du eragina gai horri heltzeko moduan, modu horiek ugaritu eta dibertsifikatu egin baitira. Berriki, *streaming* bidezko plataformek ere gaiaren inguruko telesail laburrak eraman dituzte pantailletara. Plataformek gai horien aldeko apustua egiteak erakusten du ikusleek iragan hurbil eta traumatiko horren inguruko interesa badutela.

Sorkuntza artistikoa eremu emankorra da gogoeta eta kritika soziala errazteko. Produktu artistikoak tresna oso baliagarriak izan daitezke iraganari begi kritikoz begiratzen ikasteko, bai banaka eta bai kolektibo gisa. Horretarako materiala badago.

1.2. Historia eta Memoria. Memoria eta Historia. Lan dinamika

Memoria eta Historia. Historia eta Memoria. XIX. mendean, historia positibista nagusi zenean, ia ez ziren bereizten. Baina XX. mendearen hasieraz geroztik, bi kontzeptuak bereizten joan dira, poliki-poliki. Lehen Mundu Gerraren ondoren, Maurice Halbwachs frantziar soziologo eta psikologoak memoria eta historia aurrez aurre jarri zituen: memoria aldakorra zen, zehatza, bizi izandakoa, esperimintatutakoa, afektiboa; historia, ordea, kritikoa, abstraktua eta kontzeptuala.

Historialariek, oro har, memoria eta historia bereizten lagundu dute, argi utzi baitute errealitate desberdinak eta bereizitua direla. Historia gertakaritik kanpora kokatzen da eta hartara modu kritikoa hurbiltzea du helburu, aztertu eta esanahia emateko, ulergarria izan dadin. Memoria, berriz, gertakariarekin, gogoratzen edo ahanzten duen subjektuarekin, esperientziarekin eta lekukotzarekin guztiz lotuta geldituko litzateke. Hala ere, egileek bi kontzeptuen arteko erlazioak agerian jartzen dituzte eta adierazten dute mugak ez direla hain argiak, bereziki bizi, esperimintatu eta gogoratutako gertakariak aztertu nahi direnean, alegia, memoria bizia historiaren aztergai bihurtzen denean. Horrek bistan uzten du bi kontzeptuen arteko harremanak konplexuak direla. Lekuko begietatik begiratzen mugatzeak historialaria eraman dezake lekukotza eta kontatutako esperientzia egia bakarria bilakatzen (historia memoria bilakatzea). Historialariak, ordea, bere eskura ditu erronka hori gainditzeko eta lekukotzak modu kritikoa aztertu ahal izateko tresna metodologikoak. Historiak memoria denboraren marra luzean kokatzen laguntzen du eta haren askotarikotasuna, aniztasuna eta ibilbide gorabeheratsua agerian utz ditzake, kontakizun justifikatzaileak eta kolore bakarrekoak baztertuta, edozein tokitatik datozela ere (memoriak historia bilakatzea).

Lantaldeak historiaren eta memoriaren arteko harreman hori hezurramitzen du, nolabait. Talde eragilea hiru historialarik eta hiru biktimak osatu dute, martxoan hasi zen lanean eta aldiro-aldiro elkartzen joan da, eskatutakoari erantzuteko. Lan prozesua printzipio eta jarrera hauetan oinarritu da: diskrezioa, autonomia, askatasuna, konfiantza, errespetua, entzutea, empatia, elkarriketa eta adostasunak.

Lanerako esparrua zedarrituta, eta eskatutakoari erantzuteko, lantaldeak hainbat diziplina eta sentsibilitatetako adituak elkarriketatzea erabaki zuen, memoriaren politikarekin zerikusiren bat zutenak, haien ekarpenak *Euskadin memoriaren gizarte eraikuntzarako oinarri partekatutak* zehazteko lagungarri izango zirelakoan. Azkenean, hogeita hiru elkarriketa egin dizkiegu askotariko esparru, jakintza arlo eta esperientzietako pertsonen. Azken hautaketa horretan eragina izan du proiektua aurrera eramateko genuen denborak eta agenda arazoek. Ezin dugu esan diren guztiak daudenik, baina bai dauden guztiak direla. Gure ustez, azken lagina nahiko zabala eta anitza da eta egoki ordezkatzeko memoriaren eta bizikidetzaren esparruan aurrera eramaten ari diren esperientziak eta gogoetak. Zuzenbidean, historian, antropologian, etikan, psikologian, medikuntzan, literaturan, komunikazioan, irakaskuntzan edo didaktikan prestakuntza duten pertsonak elkarriketatu ditugu; nazioarteko ikuspegia eskaini diguten pertsonak, egiaren batzordeetan aritu izan direlako; giza eskubideen, memoriaren eta bizikidetzaren gaietan lan egiten duten pertsonak; motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak; eta euskal gizarteko kultura politikoa nagusien ordezkariak (*1. eranskina*).

Hogeita hiru lagun horien ekarpena funtsezkoa eta balio handikoa izan da talde eragilearen gogoeta prozesurako. Baina gaur aurkeztu ditugun emaitzen erantzukizuna sei egileena besterik ez da, elkarriketatutako pertsonen ez dute inolako konpromisorik emaitza horiek.

Elkarriketatetik eta gai honen inguruko hainbat txosten, dokumentu eta bibliografiaren irakurketatik eman diogu erantzuna eskatu zitzaigunari. Jarraian, labur bada ere, lan eta gogoeta prozesu honen emaitzak aurkeztuko ditugu, hasieran esan dugun bezala, komunean dugunetik, batzen gaituenetik, partekatzen dugunetik abiatuta.

2. Emaitzak: Bizikidetzarako memoria. Oinarri partekatuak

2.1. Ahanzturarik gabeko etorkizuna

“Ahanztura” izan da, sarri askotan, gizarteek “gizarte bakea” eraikitzeke erabili duten bidea. Bake eta adiskidetze politikoko eredu asko oinarritu dira “ahanztura juridikoan” (amnistiak eta zigorgabetasuna) eta “ahanztura publikoan” (iraganeko “zorrak” modu publikoan ez kitatzea).

Gaur, ordea, euskal gizarteak ez du ahaztu nahi. “Orrialdea azkar pasatzeko” gizarte premia ez dugu ahanzturarekin nahasi behar. Gure ustez, gaur egun terrorismoak -dituen adierazpide guztiekin- eta motibazio politikoko indarkeriak hedabideen azalak ez betetzeak eta gizarte elkarrizketetako gai nagusia ez izateak ez du esan nahi euskal gizarteak bere etorkizuna ahanzturaren gainean, ezerezaren gainean eraiki nahi duenik. Ez gara banakako ahanztura eskubideaz ari, hori pertsona batek galera bat eta haren ondorio diren oinazea eta sufrimendua gainditzeko terapeutikoa, osasungarria eta, zenbaitetan, bide bakarra izan baitaiteke. Aitzitik, “ahanztura publikoaz” ari gara eta horrek beti egiten dio mesede gertatutakoan erantzukizun mailaren bat izan dutenei (giza eskubideen urraketa larriren bat eragin duen edozein ekintza zuzenean egin duenetik hasi eta ekintza hori agindu, ezkutatu, babestu edo salatu gabe utzi duenera arte).

Euskal gizarteak ez du “berriro hutsetik hasi nahi” eta bere iragan hurbilaz galdetzen du, hainbat belaunaldiren bizitzen parte izan den mota ezberdinetako terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriaren hamarkada hauetaz, eta indarkeria horien ondorio izan diren giza eskubideen urraketa larri guztiez (ETAren adar desberdinen terrorismoa, Komando Autonomo Antikapitalisten terrorismoa, eskuin muturrari lotutako taldeen terrorismoa, “gerra zikina” eta GALen terrorismoa, tortura eta poliziaren legez kontrako indarkeria). Horrek ez du esan nahi, hala ere, iragana errebantxa edo mendeku gosez berrikusi nahi denik. Euskal gizarteak iraganari jarrera eraikitzailearekin eta inklusiboarekin begiratu nahi dio, iraganerako begirada horrek oinarri sendoak ekar ditzan bizikidetzarako demokratiko iraunkorrerako ereduak eraikitzeke. Gaur, euskal gizarteak “baitetz” esaten dio memoriadun etorkizunari.

2.2. Memoriadun etorkizuna

Nazioarteko hainbat esperientziak erakusten digute gizarte guztietan, une batean edo bestean, agerian gelditzen dela haietan eragina izan duten eta eragina duten gertakari eta esperientzia traumatikoak publikoki jasota utziko dituen memoria bat eraikitzeke beharra. Eta euskal gizarteak ez da horretan salbuespena. Behar horri erantzutea, ordea, ez da erraza. Memoriaren eremua beti da gatazkatsua, dinamikoa, aldakorra, belaunaldi artekoa, banakakoa eta kolektiboa; beti da anitza. Memoriaren aniztasuna berezkoa du gizakiak, norberaren bizipenak, esperientziak eta sozializazio moduak besteenen desberdinak direlako, baita kontrajarriak ere, eta belaunaldi bakoitzak aurrekoak utzi dion “legatua” (oroimena) berraztertzeke eskubidea duelako. Baina horrek ez gaitu kezkatu behar. Are gehiago, aniztasuna da demokraziaren oinarrietako bat.

Ikuspegi horretatik, memoria, singularrean, hau da, kontakizun “ofizial” bakarra, artifiziala da, antzua eta ez du laguntzen bizikidetzarako eraikitzen. Hala ere, ez gaitu gogobetetzen memoria desberdinak elkarren ondoan jartzeak, besterik gabe. Obra koral honen partituran, gutxieneko harmonia bat bilatu beharko genukeelakoan gaude. Eta hori ez da lan erraza. Testuinguru politiko gatazkatsu eta polarizatuetan, gertatutakoaren inguruko adostasunak mugatuak izan ohi diren arren, zailtasun horiek ez digute eragotzi behar “toki komun” batzuk, oinarri partekatu batzuk, bilatzen ahalegintzea. Giza eskubideen nazioarteko esparrua eta balio etiko eta demokratikoak dira, gaur-gaurkoz, toki komun hori.

2.3. Nork bere burua justifikatzea helburu duten kontakizunak gainditzea

Gertakari eta esperientzia traumatikoak modu publikoan jasoko dituen memoria bat eraikitzeke zailtasuna ez dago memoriaren aniztasunean, baizik eta memoria horietatik abiatuta, nork bere burua justifikatzeko osatzen dituen kontakizunetan. Kontakizun horietako bakoitzak bere kontzeptuak, gertaerak, ahanzturak eta isiltasunak ditu. Eta hautaketa hori inoiz ez da inozoa. Kontakizun instrumentalak dira, alderdikoak, lehiakorak, inposatzaileak eta, aldi berean, norberaren jarreraren defendatzaileak eta jarrera horietan gotortuak, errebantxa asmokoak, autokritikarako tarterik uzten ez dutenak, baztertzailak, “besteak” aintzat hartzen ez dutenak, entzuten ez dutenak eta elkarrizketarako biderik ematen ez dutenak. Nork bere burua justifikatzea helburu duten kontakizun horiek tentazio handia dira eta izan dira; inorentzat ez da erraza joera hori saihestea, erosoak direlako eta babesleku bat eskaintzen digutelako, norberaren ikuspegia baliozko eta posible bakarra dela berresten eta baieztatzen baitute. Baina tentazio arriskutsua dira. Nork bere burua justifikatzeko kontakizunak geure baitan ixten gaituzte; besteengandik urruntzen gaituzte; “batzuen” eta “besteen” jokalekua, “batzuk besteen aurrez aurre” jartzea betiketzen eta kronifikatzen dute. Nork bere burua justifikatzeko kontakizunak “euste hormak” eraikitzen dituzte, isolatu eta baztertzuten dutenak, eta bizikidetzarako demokratikorako eremu berriak eraikitzen aldutzen gaituztenak. Horixe da, hain zuzen ere, arazoa.

2.4. Iraganaren berrikuste kritikoa eta autokritikoa

Iraganera begiratzeak ez du bermatzen gertatu zena etorkizunean “errepikatuko ez” denik. Baina historiak erakusten digu beren iragana modu kritikoa eta egiaz berrikusten duten gizarteek berriro “ez errepikatzeke” berme handiagoak dituztela. Eta horrek garrantzi handia du bizikidetzarako.

Iraganaren berrikuste kritikoa lehen dimentsioak erantzukizun akademikoago eta zientifikoago batera eramaten gaitu eta maila orokorrago batean kokatzen gaitu, gehienek behatzaile eta/edo hartzaile rola dutela. Horrek ez dio garrantzi izpirik kentzen berrikuste horren beharri eta haren inguruko adostasunari. Baina iraganaren ikuspegi “zientifiko” hori bezain beharrezkoa da autokritika. Eta autokritikak zuzenean galdegiten die, aitzakiarik gabe, terrorismoaren edozein adierazpenetan eta motibazio politikoko indarkeriaren adierazpen eta giza eskubideen urraketatik zuzeneko eta zeharkako erantzukizuna izan zutenei.

Autokritikak eremu partikularragoan kokatzen gaitu, norberarenean, banaka hartuta (“ni”) edo modu kolektiboan hartuta, baina beti norberaren imajinariotik asko urrundu gabe (“gu”, “neureak”). Rol aktiboa eta konprometitua eskatzen du. Atzera begiratu eta gutako bakoitza non egon zen gogoratzea ariketa komenigarria da, baita konplexua, delikatu, arantzatsua edo deserosoa ere. Baliteke atzokoaren ispilu horrek erakusten digun guztia gustuko ez izatea; beharbada, gure iragan hurbileko momentu jakin batzuetan izan ditugun jokabide eta jarreretako batzuek gogaitu, haserretu, zapuztu, mindu, nahigabetu edo eskandalizatu egingo gaituzte. Kontua ez da gure burua zigortzea. Autokritika egiteak norberarengandik ateratzen laguntzen du, “gainerakoei” irekitzen, “bestelakoei”, “aurrez aurre” eduki ditugunei, “aurkariari”.

Iraganaren berrikuste kritikoa egitea guztiontzat da gomendagarria. Eta nahitaezkoa da giza eskubideen urraketatik bakoitzean zuzeneko eta zeharkako erantzukizuna izan duten guztientzat. Iraganeko begirada horrek dimentsio eta balioespen etiko bat ere hartu behar du barne, giza eskubideen urraketa guztiak bidegabeak izan direlako, direlako eta izango direlako beti. Ez gatazka politikoen eta ez Estatuaren arazoak ez dute justifikatzen, inolaz ere, indarkeria erabiltzea. Autokritika nork bere burua justifikatzeko, nor bere buruarekin gustura gelditzeko eta inolako kritika etikorik gabeko kontakizunak gainditzeko behar dugun antidotoaren funtsezko osagaia da, jokaera horiek ez baitigute lagunduko memoriadun etorkizunean oinarrituko den bizikidetzarako demokratikoa eraikitzen.

2.5. Egia

Iraganaren berrikuste kritikoak –erantzukizun akademikoago eta zientifikoago batera eramaten gaituenak– gertakarien egia bilatu behar du. Komuna, partekatua, adostua dena ezagutzaren gainean eraiki behar da, ez beste ezeren gainean. Bi ezagutza maila edo geruza bereiziko ditugu; bakoitzak bere eskakizunak ditu, elkarren osagarriak.

Lehen mailak egia eta justizia lotzen ditu eta datuei/gertakariei eragiten die: behar-beharrezkoa da dagoeneko egiaztatu diren mota desberdinetako terrorismoaren eta giza eskubideen motibazio politikoko urraketa larrienen gertakariak/kasuak behin betiko argitzea edo, hala badagokio, ikertzea. Era berean, gaur egun oraindik argitu, ikusi, jaso edo katalogatu gabe dauden gertakariak/kasuak identifikatu eta ikertzea ere nahitaezkoa da, beti ere giza eskubideen nazioarteko estandarretatik abiatuta.

Egiak erakusten digu gertakari batzuen larritasunak konponezin bihurtzen dituela. Baina horrek ez du esan nahi ikertzen jarraitu behar ez denik, dagoeneko egiaztatu diren gertakariak argitzeko, baita kasu berriak identifikatzeko ere. Eta zeregin hori ez da atzeratu behar.

Bigarren mailak ikerketa zientifikora eramaten gaitu, gertatutakoa ulertzeko beharrezkoa: gertakariak, datuak, funtsezkoak dira. Egiara hurbiltzen gaituen lehen geruza dira, ezinbestekoa. Errealitateari dagokion dimentsioa ematen laguntzen digute. Baina gertakariak eta datuek ez dute gertatutakoa guztiz azaltzen. Edozein ikertzailek beti bi galdera egiten ditu: zer? eta, batez ere, zergatik? Gertatutakoa ulertzea eta azaltzea da zientzien *leitmotiva*, baita gizarte eta giza zientziena ere, besteak beste, historiarena. Euskal herritarren zenbait belaunaldiren eguneroko errealitatea egituratu duen indarkeria politikoa zorrotasun zientifikoz aztertu eta azaldu behar da. Hala egiten ez badugu, gertakariak kontatzen jarraituko dugu, baina gertatutakoa ulertu gabe, edo norberaren jarrera justifikatzeko kontakizunak egiten jarraituko dugu. Errealitatea aztertu, azaldu eta ulertzea ez da gertatutakoa justifikatzearekin nahastu behar. Termino horiek eta bakoitzaren esanahia bereiztea funtsezkoa da. Analisi zorrotzak, azalpenak, testuinguruan jartzeak dira justifikazio interesatuen aurrean ditugun tresna baliagarri eta eraginkorrenak. Hain zuzen ere, edozein terrorismo, motibazio politikoko indarkeria edo giza eskubideen urraketak azaldu egin behar dira, haien bulkadak eta motibazioak dagokien testuinguruan kokatu behar dira, jakinda fenomeno horiek ezin direlako, inolaz ere, justifikatu edo ontzat eman.

Zalantzarik gabe, erronka horrek adore handia eskatzen du eta, beharbada, urteetan ikasi eta barneratutakoaren zati handi bat “desikastea” eta “deseraikitzea”; ziur aski, kategoriatu, analitiko, metodologiko eta kronologiko berriak behar izango ditugu, baita terminologia berria ere, gertatutakoa aztertu eta ulertu ahal izateko. Gaur egun, “zergatik?” galderari erantzuterakoan ez dugu adostasunik aurkituko. Ados gaude, ordea, esaterakoan adostasuna ezagutzan oinarritu behar dela eta ezagutza funtsezkoa dela justifikazio interesatuak gainditzeko eta saihesteko, baita “ez errepikatzea” bermatzeko ere.

Egiarako eskubidea bizikidetzarako memoriaren oinarrietako bat da. Eskubide hori, gainera, betebeharrak bihurtzen da erakunde publikoentzat, akademiarentzat eta gizarte eragileentzat. Egiak, hasteko, ezagutza behar du, eta ezagutza hori sortu eta transferitu egin behar da. Lantaldean hiru historialari egonik, azpimarratu behar dugu ezagutza horretan aurrera egin ahal izateko garrantzi handikoa dela dokumentazioa eskura eduki ahal izatea eta artxiboak irekitzea. Era berean, ezagutzak ikerketa, gizarteratzea eta dibulgazioa eskatzen ditu. Esparru horietan azken urteetan egin diren aurrerapausoak esanguratsuak izan badira ere, oraindik bide luzea dugu aurretik. Horregatik, beharrezkoa da ezagutza zabalzera eta sakontzera bideratutako baliabideak eta politikak indartzea, egiaren eskubide preskribaezina bete ahal izateko.

2.6. Biktimak guztien aitortza: memoriari buruzko politika publikoen ardatza

Biktimak indarkeriaren bidegabekeria gordinenaren eta sufrimendu onartezinaren erakusle dira. Biktima horietako bakoitza eta guztiak aitortzea funtsezkoa da etorkizunean memorian eta egian oinarritutako bizikidetzarako demokratikoa eraikitzeke.

Biktimen lekukotzak ezinbestekoak dira arestian aipatu dugun egiaren eta justiziaren lehen geruza horretarako. Baina lekukotza horiek askoz ere aukera gehiago eskaintzen dituzte. Lekukotzek dimentsio didaktiko eta pedagogiko paregabea dute. Biktimen lekukotzek gatazkak gizatiartzen dituzte eta “bestearen”, “gu bezalakoa ez denaren” oinazearekin bat egitea ahalbidetzen dute, enpatian, errespetuan eta entzutean oinarrituta. Funtsezkoak dira norberaren kokalekutik atera eta “bestearengana” irekitzeko. Eta autokritika egiten lagundu dezakete. Biktimen lekukotzek izugarritzko balioa dute memoriaren inguruko politika publiko ororen helburu handiena lortzeko: “ez errepikatzea”.

Hala ere, ez da biktimen betebeharrak iragan diziiplina historikoaren irizpideekin berrikustea ezta gertatutakoa azaltzea ere. Zeregin horrek osagai zientifiko-akademiko bat behar du. Rolak eta espazioak bereizi behar dira, argi eta garbi. Bestalde, biktimek ez dute gainerako herritarrek baino arrazoi politiko handiagorik, biktimak izateagatik bakarrik. Horregatik, gure ustez, saihestu egin behar da biktimak eremu publikoan politikoki erabiltzea eta berriro biktimizatzea edo bigarren mailako biktimizazioa egitea. Are gehiago, gizarte demokratiko batean, helburua izango litzateke biktimaren egoera ez betikotzea. Sufritu dena inoiz ukatu eta ahantzi gabe, gizarteak gai izan behar du galera eta trauma kroniko ez bihurtzeko mekanismoak aurkitzeko, biktimaren identitatearen elementu bakarrak izan ez daitezken. Gure iritziz, biktima guztiak aitortzeak lagundu dezake biktima izaera horretatik beste batera igarotzen, egia eta justizia gauzatzen eta bizikidetzarako oinarriak ezartzen laguntzeaz gainera. Guztion betebeharrak morala da hori.

2.7. Memoria pedagogikoa eta transmisio betebeharrak

Egunero-egunero, gertaera ugari gogoratzen digute guretzat finko eta eztabaidaezinak ziren gizarte lorpen eta eskubide batzuk hauskorrak direla. Bizikidetzarako demokratikoa etengabeko lana eta konpromisoa eskatzen ditu. Horregatik uste dugu iraganari begi kritikoez berrikusteko eta autokritika egiteak lagundu dezaketela jarrera demokratikoetan eta pertsonaren duintasunaren eta giza eskubideen erabateko errespetuan sakontzeko eta indartzeko bidean jarriko gaituzten balioak berreskuratzen eta azpimarratzen. Herritarrek balio etiko eta demokratikoak landu, partekatu eta bere egin behar dituzte eta haiekiko konpromisoak eraman behar dituzte balio horien kontrako edozein agerraldi publiko gaitzestera.

Horrek ez du esan nahi guztiok ideologia berdina izan behar dugunik edo adierazpen askatasuna mugatu behar denik. Demokraziak eta eztabaida publikoak berezko dituzte aniztasuna eta pluraltasun politikoa; bat ez etortzeak, gatazkek, protestak edozein gizarte errealitatearen zati izaten jarraituko dute. Baina, gure ustez, gertatutakoa ezagutzeak eta ulertzeak eta balio etikoak eta demokratikoak lantzeak tresnak eta gaitasunak emango dizkigute balio horien kontrako jarrerak identifikatzen eta gure gatazka eta desberdintasun legitimoak indarkeria erabili gabe konpontzen ikasteko, traumarik gabe, aniztasunean oinarritutako bizikidetzarako arriskuan jarriko duten hausturarik gabe.

Ildo horretatik, uste dugu gertatutakoa ezagutzeko lan egiten eta sakontzen jarraitu behar dela eta gertatutakoa modurik didaktikoenean azaltzeko ahaleginak egin behar direla, bereziki belaunaldi gazteengana iristeko. *Adi-adian* eta hezkuntza esparruko antzeko esperientziak erakusten ari dira euskal gazteriak ere gure iragan hurbila ezagutu nahi duela. Era berean, hezkuntza arautuan balio etikoen eta demokratikoen prestakuntzan sakontu behar dela uste dugu eta esparru ez hain formalak ere kontuan hartu behar ditugu, adibidez, sormen eta ekoizpen artistikoarena, haren osagai pedagogikoa eta gizarte eraldaketak oso garrantzitsua izan baitaiteke. Fikzioak ere aukera handia eskaintzen digu gauzak beste modu batera ikustarazteko, gure kontraesanetako

asko azaleratu ditzake, zalantzak sortzen dizkigu, barrua mugitzen digu eta beste modu batera galdegiten digu, emozioak ukituz, prestakuntza arautuan baino gehiago. Horregatik esaten digu bi esparruak osagarriak direla.

Memoriaren inguruko politika publikoek transmisioa helburu duten jardunbide, proiektu eta ekimen horiek guztiak erraztu eta lagundu ditzakete. Belaunaldi berriak, ordea, ezin dira politika horien hartzaile huts izan; rol aktiboa behar dute politika horietan, etorkizuneko bizikidetzaren eredu protagonista izango baitira. Esparru horretan, irudimenez jokatzeko dagokigu.

2.8. Memoria partekatua

Bizikidetzaren demokratiko sendoa eraikitzearen nahitaezkoa da gu guztion borondatea eta konpromisoa. Guztiok digu horretan erantzukizuna. Baina zenbat eta handiagoa izan gure mezuekin herritarrengan eragiteko izan dezakegun gaitasuna, are handiagoa izango da erantzukizuna. Norberaren interes eta ideologia legitimoak edozein izanda ere, guztiok, eta, bereziki, eragin handiagoa dutenek, bizikidetzaren demokratikoarekin lotzen ditugun balioen eredu izan behar digu espazio publikoan, gure hitzekin eta gure ekintzekin. Izan ere, gure hitz eta ekintza publikoekin lagundu dezakegu "batzuen eta besteen" edo "gure" eta "besteen" diskurtsoetan sakontzen -jakinik diskurtso horiek zauriak irekitzen dituztela, biktimei berriro oinazea eragiten dietela eta antzuek direla bizikidetzaren demokratikoa eraikitzearen edo lagundu dezakegun diskurtso horiek gaitzen. Bizikidetzaren demokratikoak nor bere burua justifikatzeko kontakizunak urte askotan eraiki dituzten hormak eraitsi behar ditu, eremu publiko berri bat eraiki ahal izateko, inklusiboa, errespetuan eta elkarriketa demokratikoan oinarritua. Horretarako, ezinbestekoak dira borondatea eta konpromisoa, "erosotasun eremuetatik" ateratzeko ausardia eta arriskuak hartzea. Euskal gizarteak merezi du hori.

2.9. Bizikidetzaren demokratikorako memoria

Orainak adierazten eta baldintzatzen dizkigu beti bai iraganerako begirada eta bai etorkizuneko itxaropenak; eta gaur bakoitzak, orain bakoitzak, bere behar zehatzak ditu. Gaur, euskal gizarteak bere iragan hurbilaz eta belaunaldi askoren bizitzaren parte izan diren izu eta giza eskubideen urraketa larriko hamarkadez galdetzen du. Euskal gizarteak iraganari begiratzen dio (memoria) gertatutakoa ulertzeko beharra duelako eta oinarri sendoak sortu nahi dituelako gertatutakoa "ez errepikatzeko" eta bizikidetzaren demokratiko sendoa bermatzeko (etorkizuna).

Ahantzura publikorik ez egotea. Nor bere burua justifikatzeko kontakizunak ez egitea. Memorien aniztasuna. Iraganaren berrikuste kritikoa, gertakarien egia, ezagutza eta ulermena. Autokritika, erantzukizuna bere gain hartzea eta ez justifikatzea. Begirada etikoa. Biktima guztiak aitortzea. Memoria pedagogikoa. Balio etikoa eta demokratikoa. Justizia. Giza eskubideak. Errespetua. Enpatia. Elkarriketa. Memoriadun etorkizuna.

Horiexek dira hitz gakoak, Euskadin memoriaren gizarte eraikuntzarako gaur partekatzen ditugun oinarriak. Lantalde honen baterako gogoetaren emaitza da hau, memoriari eta bizikidetzari modu berezi batean begiratzeko eman diguna. Ez da begirada bakarra, ez da letra larriz idatzitako dokumentua, ez da behin betikoa. Prozesu bat da, bukatu gabea, osagabea, eztabaidagarria. Ekarpenean, gaur partekatu dugunaren isla, eta etorkizuna partekatzen jarraitzeko beste hondar ale bat izan nahi duena.

Bilbo, 2022ko azaroaren 10a.

ERANSKINA: Elkarrizketatu ditugun pertsonen zerrenda

	Izen-abizenak	Deskribapena	Bileraren eguna eta tokia
1.	Ardanza Garro, José Antonio	Eusko Jaurlaritzako lehendakaria 1985 eta 1999 urteen artean (EAJ)	Bilbo, 2022ko uztailaren 14a
2.	Arrese Araolaza, Jaime	Jaime Arrese Arizmendiarieta Komando Autonomo Antikapitalistek 1980an hil zuten UCDko politikariaren semea. <i>Adi-adian</i> hezkuntza moduluen garapenean parte hartu du	Donostia, 2022ko uztailaren 20a
3.	Buesa Rodríguez, Sara	Fernando Buesa Fundazioko presidenteordea. ETAk 2000an hil zuen politikari sozialistaren alaba	Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a
4.	Eguiguren Imaz, Jesús María	Euskal politikaria, Eusko Legebiltzarreko kidea 1983 eta 2012 urteen artean eta PSE-EEko presidentea 2002 eta 2014 urteen artean	Donostia, 2022ko ekainaren 16a
5.	Etxeberria Gabilondo, Francisco	Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra (EHU) eta Kriminologiaren Euskal Institutuko irakaslea. 2000az geroztik, desagertuen eta hobi komun inguruko lantaldeko zuzendaria Aranzadi Zientzia Elkartearen 2020az geroztik, Espainiako Gobernuaren aholkularia memoria historikoari lotutako gaietan	Donostia, 2022ko ekainaren 30a
6.	Fernández Soldevilla, Gaizka	Gaur Egungo Historiako doktorea. Gasteizko Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroko Artxibo, Ikerketa eta Dokumentazio arloko arduraduna	Gasteiz, 2022ko ekainaren 30a
7.	Galdeano Prieto, Karmen	Xabier Galdeano Arana GALek 1985ean hil zuen Egin egunkariako kazetariaren alaba. <i>Egiari Zor</i> Fundazioko kidea	Bilbo, 2022ko irailaren 27a
8.	Hernan, Agus	Kazetaria. Foro Sozial Iraunkorreko koordinatzailea	Donostia, 2022ko ekainaren 28a
9.	Intxaurbe Vitorica, José Ramón	Zuzenbidean doktorea. Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko kidea	Bilbo, 2022ko uztailaren 12a
10.	Landa Gorostiza, Jon-Mirena	Zigor Zuzenbideko katedraduna (akreditatua) EHU. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria (2005-2009). Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedraren zuzendaria (EHU)	Bilbo, 2022ko uztailaren 21a
11.	Lira Kornfeld, Elizabeth	Giza eskubideen, historiaren eta memoriaren arloan espezializatutako psikologoa. Txileko Espetxeratze Politikari eta Torturari buruzko Batzorde Nazionalen ("Valech Batzordea") kidea	Donostia, 2022ko irailaren 9a

12.	Majuelo Gil, Emilio	Historian doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakasle titularra. 2020ra arte, 1936 eta 1975 urteen artean, gerra zibilean eta frankismoan Nafarroan izan zen errepre-sioaren memoria historikoaren dokumentu funtsari buruzko proiektuaren zuzendaria	Online, 2022ko ekainaren 22a
13.	Maraña, Maider	Historian lizentziaduna, giza eskubideetan eta bitartekaritza prozesuetan aditua. <i>Baketik</i> Fundazioaren zuzendaria	Donostia, 2022ko uztailaren 13a
14.	Martín Beristain, Carlos	Sendagilea eta psikologoa. Kolonbiako Egiaren Batzordeko eta giza eskubideen urrakete-kin lotutako beste batzorde batzuetako kidea	Busturia-Online, 2022ko uztailaren 4a
15.	Mendoza Pérez, Julen	Errenteriako alkatea 2011 eta 2019 urteen artean (Bildu eta Euskal Herria Bildu). Udal-erritiko bizikidetzaren prozesuaren eta biktimen arteko topaketaren bultzatzailea	Donostia, 2022ko ekainaren 28a
16.	Merinero, Asun	Bizkaiko Batzar Nagusietako hautetsia 2015 eta 2019 urteen artean (Podemos/Ahal dugu). Giza eskubideen aldeko hainbat mugimendutako kidea	Bilbo, 2022ko ekainaren 20a
17.	Olaziregi Alustiza, María José	Euskal Literaturako katedraduna EHU-n. Etxepare Institutuan, euskararen sus-tapen eta hedapenerako zuzendaria 2010 eta 2016 urteen artean. Memoria Historikoa Iberiar Literaturan onetsitako ikertaldearen ikertzaile nagusia	Online. 2022ko urriaren 11
18.	Ormazabal Elola, Sabino	Kazetaria. <i>Argituz</i> Giza Eskubideen aldeko Elkarteko kidea	Donostia, 2022ko uztailaren 13a
19.	Peritz Mendizabal, Xabier "Euzkitze"	Kazetaria, komunikatzailea eta bertsolaria. Euskaltzaindiako euskaltzain urgazlea	Zarautz, 2022ko irailaren 28a
20.	Rabanera Rivacoba, Ramón	Arabako ahal-dun nagusia 1999 eta 2007 urteen artean (Alderdi Popularra). Alderdi Popularreko senataria 2008 eta 2012 urteen artean	Gasteiz, 2022ko urriaren 4a
21.	Rekondo Sanz, José Antonio	Hernaniko alkatea 1991 eta 1999 urteen artean eta 2003 eta 2007 urteen artean (Eusko Alkartasuna). <i>Elkarbiziko</i> kidea	Donostia, 2022ko ekainaren 20a
22.	Urkijo Azkarate, Txema	Abokatu. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubi-deen zuzendaria 2002 eta 2005 urteen artean. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako aholkularia 2006 eta 2012 urteen artean. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Idazkaritzaren Biktimen inguruko Politikaren koordinatzailea 2013 eta 2014 urteen artean	Online, 2022ko irailaren 29a
23.	Vicent Otaño, Naiara	Gizarte Zientzien Didaktikako doktorea eta EHUko irakaslea. <i>Adi-adian</i> hezkuntza modu-luan parte hartzen du, unibertsitate esparruan	Online, 2022ko irailaren 30a